



## **8/2024 LEHENDAKARI EBAZPENA**

Leitzan, 2024ko apirilaren 16an

**GAIA: ALDI BATERAKO ENPLEGUA EGONKORTU ETA FINKATZEKO EZOHICO PROZESUARIO DAGOKION LANPOSTUAK MEREZIMENDU-LEHIAKETA BIDEZ BETETZEKO DEIALDIA. IZENDAPENA.**

MAIDER AMANTEGI URDALLETA, Leitza, Areso, Goizueta eta Aranoko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateko lehendakariak, Toki- araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 21.artikuluak onartzen dion gaitasunean oinarritua, honakoa

### **ADIERAZTEN DU:**

2022ko azaroaren 21eko Nafarroako Aldizkari Publikoko 231. aldizkarian argitaratu ziren Leitza, Goizueta, Areso eta Aranoko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateko lanpostu hutsak merezimendu lehiaketa bidez betetzeko deialdia eta prozesua arautuko duten oinarriak, aldi baterako enplegua egonkortzeko eta finkatzeko prozesu bereziaren barnean, Enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legean xedatutakoaren arabera.

2024ko martxoaren 27an LAGA Mankomunitateko web orrialdean Mankomunitateko lanpostu hutsak merezimendu lehiaketa bidez betetzeko prozesuaren baitan, izendapen proposamena argitaratu, organo eskudunari igorri eta beharrezko agiriak aurkezteko 10 eguneko epea ireki zuen.

Aurkeztutako agiriak kontuan hartuta,

### **EBAZTEN DU:**

**LEHENA.-** Amaia Alduntzin Estanga andrea Leitza, Goizueta, Areso eta Aranoko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatearen zerbitzurako lan kontratudun langile finko izendatzea familia langile lanpostua (Plantilla organikoko 9.postua) betetzeko:

- Izen-abizenak: Amaia Alduntzin Estanga
- Txanda: Merezimendu-lehiaketa
- Lanpostua: Familia langilea
- Plaza zenbakia: 9





- Maila: D
- Araubide juridikoa: LK
- Hizkuntzak: Euskara (B2 ahozkoa / B1 idatzizkoa)
- Lanaldia: %75

**BIGARRENA.-** Izendatutako izengaiak apirilaren 25ean jabetu beharko du lanpostuaz. Egun horretan, behar bezala justifikatutako ezinbesteko kasuetan izan ezik, lanpostuaz jabetzen ez denak galdu egingo ditu deialdia egin duen toki-erakundeko lan kontratudun langile finko izateko eskubide guztiak.

**HIRUGARRENA.-** Ebazpen hau toki-entitatearen pertsonal-arloari helaraztea, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea eta interesdunei jakinaraztea.

Leitzan, 2024ko apirilaren 16ean

LEHENDAKARIA

Maider Amantegi Urdalleta

IDAZKARIA

Maider Castilla Elarre

Horren guztiaren berri izan dezazun eta dagozkion ondorioak sor ditzan jakinarazten dizut; honen aurka errekurso hauetakoren bat jarri ahalko da:

- 1.- Aukeran, eta beti ere hilabeteko epean, Berraztertzeko errekurtsua, egintzaren organo egileari zuzendua, edo Gora jotzeko errekurtsua, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua.
- 2.- Administrazioarekiko auzi-errekurtsua, Nafarroako Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Sailari zuzendua, bi hilabeteko epean, erabakia jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik hasita, aurreikusitako kasuetan salbu.

